

Zerbitzua bermatzeko eta segurtasun neurriak betetzeko helburuarekin

EROSKI-K 2.700 LAGUNEKIN INDARTU DITU BERE TALDEAK ALARMA EGOERA ABIATU ZENETIK

- Kontratazio gehienak dendetako taldeetarako, logistikarako eta *on line* zerbitzurako izan dira
- Martxo erdialdetik apiril hondar aldera, 1.413 lagun sartu ziren enpresan, EROSKIrekin lehendik lan arloko loturarik ez zutenak
- Aldi horretan, beste 1.292 lagun atzeman dira, lehendik enpresan boladaka ari izan direnak
- Egoitzan jardun ohi diren 800 lagun inguru ere dendako taldeak indartzeko baliatu dira hilabete honetan

Elorrio, 2020ko maiatzaren 27a.- Martxo erdialdean alarma deklaratu zutenetik apiril hondar aldera arte, [EROSKI](https://www.eroski.es)k bere taldeak indartu ditu 2.705 lagunekin. Helburua izan da zerbitzuaren kalitatea bermatzea eta osasun larrialdi osoan prebentzio neurriak behar bezala betetzen direla ziurtatzea.

Kontratazio guztietatik, zati bat logistikarako izan da, bere jarduera asko igo baita aldi horretan, eta saltokiak behar bezala hornitzen zirela ziurtatu behar baitzen; beste zati bat taldeak indartzeko; eta beste bat *on line* negoziarako, %80 ere igo baitu bere gaitasuna hilabete eta erdi horretan.

Erdia baino gehiago, zehazki 1.413 lagun, lehendik EROSKIrekin aritu gabeak ziren. Gainerako 1.292 lagunak, berriz, boladaka arituak dira enpresarentzat.

Denda barruko errefortzuak

Konpainiaren egoitza sozialetan aritzen direnen parte bat, 800 lagun inguru, dendetara aldatuak izan dira. Gehienak produktuak apaletan ipintzeko behar izan dira. Bere lanpostuko jarduera kritikotzat joa izan ez dena, osasun krisiaren ezohiko baldintzak direla eta, behin-behinean baliatu da supermerkatuetako eta hipermerkatuetako jarduera indartzeko eta hala kontsumitzaileen horniketak ahal den ondoena ziurtatzeko. Jokabide berezi hori EROSKI kooperatiba bat delako izan da posible, langileak aldi berean jabeak direlako eta elkartasunerako eta kooperaziorako kultura errotuta dutelako.